



TELEZENTROAREN ERABILPEN ARAUDIA

ARAU OROKORRAK

1. Telezentroak, sarrera dohaineko du pertsona guztientzat.
2. Telezentroko arduradunak, Telezentroan ibilitako erabiltzaile kopurua gordeko du eta erabiltzen diren zerbitzuen jarraipena egingen da.
3. Erabiltzaile bakoitza bere objektu pertsonalak zaitu beharko ditu. Telezentroko arduraduna ez da hauek galtzearen arduraduna izanen. Gelan, beharrezkoak diren materialekin bakarrik sartzea gomendatzen da.
4. Telezentroa lan lekua denez, bertan dauden erabiltzaileak errespetatu behar dira, isilik egonez eta gizabidezkoa portaera edukiz.
5. Galarazia dago bertan jan edo edozein motatako edaria kontsumitzea.
6. Erabilitako errekurtsuak, erabili aurretik topatu ziren egoera berdinean utzi beharko dira.
7. Telezentroan antolatzen den edozein aktibitateak lehentasuna izanen du. Aldi berean, telelana, lan bilaketa, aktibitate akademikoak, eta antzekoak, lehentasuna izanen dute aisialdiko aktibitateen aurrean.

ERABILTZAILE IZATEKO ARAUAK

1. Bertako erabiltzaile izateko guttineko adina 6 urte dira. Gazteagoak guraso edo arduradun batekin egon beharko du.
2. Telezentroko erabiltzailea izateko gaitasunik ez duen, ume, haur edo helduak, gurasoek, arduradun batek edo lagunen batek lagundu beharko die bere kabuz ibiltzeko guttineneko maila hartu arte.
3. Erabiltzaileek ustekabeko gertakizunekin edo informatikako tresnak gaizki erabiltzeagatik informazio galtzen badute, Telezentroko langilea ez da hauen arduraduna izanen.



INTERNETEKO EDUKIEN ARAUAK

- Guztiz debekatua geratzen da aktibitate ilegalak edo bertzelakoak egitea Telezentroan. Ekintza Telezentroko arduradunak desegokia dela ikusten badu, ezingo da egin.
- Telezentroko arduradunak ez egokiak ikusten dituen edukiak saihesten saiatuko da, gunearen erabilera zuzen eta onerako. Arduradunak, erabiltzaileak nabigatutako lekuak kontrolatu eta gainbegiratzeko aukera izanen du, errekurtsoen erabilera txarra ez giteko.
- Haurrak eta Internet. Telezentroko arduradunak adingabeak, batez ere haurrak, ikusi dezaketen Interneteko eduki desegokiak gaineko jarraipena egingen du baina ez du "Polizia" papera beteko momentu oro jarraipena eginez.
- Haurrak eta Internet. Gurasoak azken arduradunak izanen dira haurrek Internetez ikusi dezaketen aitzinean. Gurasoak jarrera arduratsua azaldu beharko dute alde honetatik.
- Galarazia dago Interneten pornografia, terrorismo edo arrazakeri edukiak dituzten orriak ikustaraztea edo deskargatzea. Aldi berean galarazia dago pertsonen duintasunaren aurkako edukiak bisitatzea.
- Galarazia dago Telezentroko arduradunaren baimena eta gainbegiratzerik gabe, ordenagailuetan software instalazioak egitea eta edozein biltegitratze gailuen erabilpena ere.

ORDENAGILUAK ETA ALTZARIAK

- Erabiltzaile bakoitza erabiltzen ari den ordenagailu eta bertzelako errekurtsoen arduraduna izanen da. Erabiltzaileak errekurtsuak behar bezala ez badituzte erabiltzen edo ekipamenduari behar bezalako tratua ematen ez bazaio, Telezentroan ibiltzeko aldi baterako edo betirako debekua ekarri dezake. Aldi berean salaketa jartzeko aukera izan da.
- Guztiz galarazia dago erabiltzaileak altzarien eta bertzelako errekurtsoen kokapena aldatzea Telezentroko arduradunaren baimenik gabe.
- Erabiltzaileak modu zentzudunean erabiliko dituzte Telezentroko periferikoak (Inprimagailua, eskanerra, aurikularrak...).
- Erabiltzaileak Telezentroa garbi edukitzen lagunduko dute bertako paper ontzi eta bertzelakoak erabiliaz.